

Arizkun-en garagarrillaren 23-an Simon Ibarra Sumbilla-koa txapeldun.

Iruñean azken saioa azaroaren 17-an. Gayarre Teatroan izan zan. Migel Arozamena Lesaka-koa Nafarroako txapeldun eta Andres Narbarte Goizueta-koa bigarren.

Bestelako egun bat ere izan zan Ernani-n. Txirrita-ri omenaldi bikain bat egin zitzaion 1963 maiatzaren 12-an. Bertako kale bati bertsolari famatuaren izena jarri zitzaion egun artan. Bertsolaririk onenetakoak izan ziran eta festa ederrak gertatu ziran.

Euskaltzaindiak 1962 urtean agertzen ziran bertso papelik onenentzat txapelketa bat jarri zuen eta irabazleei Txirrita-n omenaldiaren egunean eman zitzaizkien sariak. Lenengoa Jesus Lete "Ibai-ertz"-ek artu zuen. Bigarrena, Sebastian Salaberria-k. Irugarrena, Manuel Uranga-k. Eta laugarrena, Basilio Pujana-k.

Azaroaren 17-an Eibar-ko zezen plazan saio bat egin zan Manuel Lasarte-ri omenez bertsolaririk onenetakoak parte artzen zutela. Modu orretan diru laguntasuna eskeiñi zitzaion bertsolari nafarrari bere gexo gogorraren ondoren.

Eztago zertan esan jentea erruz eta gustora bildu zala saio guztietara.

EUSKALZALEEN BILTZARRA EUSKALTZAINDIAK ERATUA ARANTZAZU-N

1963 iraillaren 30-etik urriaren 2-ra Euskalzaleen Biltzarra prestatu zuen Euskaltzaindiak. Bertan ainbat itzaldi egin ziran eta bakoitza bukatzen zanean berriketari bidea ematen zitzaion oitura dan bezela. Gai nagusia "Euskal iztegia eta gaur eguneko bearrak" izan zan, bi sailletan banatua. Lenengoa "Euskal iztegiaren iturburuak" eta bigarrena "Kultura itzak euskeraz".

Urrengo Euskalzaleen Biltzarra Loyola-n egingo da Aita Jesuiten etxean 1964 urteko agustuan. Iru egunetan egiteko asmoa dago: ostiral, larunbat eta igandez.

ITZALDIAK BILBON

1962 urteko martxoaren 2-an Aita Luis Villasante-k egin zuen itzaldi bat Bizkaiko Diputazioaren Bibliotekan Bizkaiko Kultura Batzarreak antolatzen dituenen artean. "Axular y su célebre obra Guero" izan zan bere jardunaren titulua.

Urte bereko apirilaren 12-an Luis Mitxelena jaunak egin zuen beste bat leku berean. "El vasco y las lenguas antiguas de España y Francia" izan zan titulua. Onela zion programak: "Raza, cultura y lengua. El aislamiento de la lengua vasca. Parentesco y afinidad. Galo y Aquitano. Escrituras y lenguas his-